



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko uztailaren 22a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak onetsia (27. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko uztailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-22/CCO-00007).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko uztailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuaren 2021eko kontuei buruzko fiskalizazio txostena. **Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Nafarroako Parlamentua (4. or.).

II.1. Datu orokorrak (4. or.).

II.2. Aplikatzekoa den arau-esparrua (4. or.).

II.3. Antolaketa egitura (5. or.).

III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (6. or.).

IV. Iritzia (7. or.).

IV.1. Finantza-auditoretzako iritzia (8. or.).

IV.2. Legeria betetzeari buruzko iritzia (8. or.).

V. Urteko kontuen laburpena (9. or.).

V.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria (9. or.).

V.2. 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (10. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakina 2021eko abenduaren 31n (10. or.).

V.4. 2021eko abenduaren 31ko balantzea (11. or.).

V.5. 2021eko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua (13. or.).

V.6. 2021eko ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria (13. or.).

V.7. 2021eko eskudiru-fluxuen egoera-orria (14. or.).

VI. Konklusioak eta gomendioak (15. or.).

VI.1. Parlamentuaren aurrekontua (15. or.).

VI.2. Aurreko urteetako gomendioen jarraipena (16. or.).

VI.3. Kudeaketa-arloak (16. or.).

Eranskina. Nafarroako Parlamentuaren organigrama (26. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2022ko martxoaren 21ean hartutako erabakia betez, ganbera bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2022rako jarduera-programarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2021eko ekitaldiari dago-kion urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu du.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Nafarroako Parlamentuaren eta haren arau-esparruaren alderdi orokorrak deskribatzen ditugu. Hirugarrenean fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa adierazten ditugu, eta laugarrenean gure iritzi finantzarioa ematen dugu Parlamentuaren 2021eko ekitaldiari dagozkien urteko kontuei eta legeriaren betetzeari buruz. Bosgarren atalean urteko kontuen laburpen bat erantsi dugu. Seigarrenean, Parlamentuaren finantza-eta aurrekontu-egoerari eta kudeaketa-arlo garrantzitsuei buruzko konklusioak eta gomendioak sartu ditugu.

Txostenak Nafarroako Parlamentuko organigrama azaltzen duen eranskin bat jasotzen du.

Lana 2022ko maiatzean egin zuten hiru auditoretza-teknikarik eta auditore batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Ez da alegaziorik aurkeztu Kontuen Ganberak ezarritako epean; beraz, txostena behin betikoa izatera igaro da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Parlamentuko langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. NAFARROAKO PARLAMENTUA

II.1. DATU OROKORRAK

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 11. artikulua arabera, Parlamentuak Nafarroako herria ordezkatzeko du, legegintzarako ahalmena erabiltzen, Nafarroako aurrekontuak eta kontuak onesten, Foru Diputazioaren jarduerak bultzatzen eta kontrolatzen, eta ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak betetzen. 50 parlamentarik osatzen dute.

2019ko ekainaren 19an, X. legegintzaldia eratzeko bilkura egin zen sei talde politikorekin. Talde horiek 2019ko maiatzaren 26an egindako hauteskunderen emaitza dira, eta lortutako parlamentari kopuruari dagokionez, taula honetan islatzen da egoera:

Alderdiak/koalizioak/elkartek	Parlamentari kopurua
Navarra Suma talde parlamentarioa	20
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	11
Geroa Bai talde parlamentarioa	9
EH Bildu talde parlamentarioa	7
Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarte	2
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	1
Parlamentariak, guztira	50

Nafarroako Parlamentuaren aurrekontua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartuta dago, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2021eko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Nafarroako Parlamentuaren funtsezko datu ekonomikoak eta langile-arlokoak:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2021-12-31n
Nafarroako Parlamentua	14.670.303	11.981.283	70

II.2. APLIKATZEKO DEN ARAU-ESPARRUA

Nafarroako Parlamentuari 2021eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua honako hau da:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina, Mahaiak 2011ko irailaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsia. 2020ko urriaren 15ean Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak aldatu egin zuen.
- Nafarroako Parlamentuaren erregelamendu ekonomiko-finantzarioa, Parlamentuko Mahaiak 2020ko urtarrilaren 27an hartutako Erabakiaren bidez onetsia.
- Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Plana, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrari egokitua.
- Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketari buruzko Erregelamendua, Parlamentuko Mahaiak 2021eko uztailaren 26an aldatua.
- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua, Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 1991ko martxoaren 20an onetsia, eta 2021eko urriaren 19an aldatua.

- Parlamentarien ordainsariei buruzko araua, Parlamentuko Batzorde Iraunkorraren Mahaiak hartutako Erabakiaren bidez onetsia, eta haren geroko aldaketak.
- Behin-behineko langileen ordainsariei buruzko araua, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2012ko abenduaren 17ko Erabakiaz onetsia, eta haren urteroko eguneratzeak.
- Mahaiaren 2019ko irailaren 2ko Erabakia, talde parlamentarioen ordainsariei buruzko arauak onesten dituena.

II.3. ANTOLAKETA EGITURA

Gobernu-organoak Osoko Bilkura, Mahaia, Eledunen Batzarra eta Batzorde Iraunkorra dira. Txosten honen 1. eranskinean Nafarroako Parlamentuaren organigrama ageri da.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantza- eta legezketasun-ikuskapen bat egin da Nafarroako Parlamentuaren 2021eko ekitaldiari dagokion urteko kontuen aurreproiektuari buruz, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2021eko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Parlamentuaren 2021eko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, jarraiturik aplikatzekoa den informazio finantzario publikoaren araudiari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei.

- Ea 2021eko ekitaldian egindako aurrekontu- eta finantza-jarduerak eta -eragiketak eta 2021eko ekitaldiari dagozkion urteko kontuetan jasotako informazioa bat datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatu beharreko araeekin.

- Aurreko urteetan emandako gomendioen betetzea.

Nafarroako Parlamentuaren 2021eko urteko kontuen fiskalizazioaren norainokoa. Honako hauek dira kontabilitateko egoera-orriak:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Balantzea.
- Ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Parlamentuaren urteko kontuak Nafarroako Parlamentuaren Kontabilitate Planari eta haren erregelamendu ekonomiko finantzarioari jarraituz egiten dira. Kontabilitate Plana Kontabilitate Publiko Plan Orokorrari egokituta dago Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2021eko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz behar diren egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

IV. IRITZIA

Nafarroako Parlamentuaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektua fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honen V. atalean.

Nafarroako Parlamentuaren erantzukizuna

Parlamentuko Kontu-hartzailera eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua urteko kontuen aurreproiektua egiteaz arduratzen da, eta legelari nagusiari aurkezten dio, azken horrek Parlamentuko Mahaiari helarazi eta Eledunen Batzarrak onspena eman diezaion. Aurreproiektu horrek irudi zehatza eman behar du Parlamentuaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, emaitzei eta finantza-egoerari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoko arau-esparruari jarraituz; erantzukizun horrek barne hartzen du barne-kontrol egokia sortzea, ezartzea eta mantentzea, urteko kontuak iruzur edo okerren ondoriozko akats materialik gabe egiteko eta aurkezteko.

Txosten honek aztergai duen urteko kontuen aurreproiektua 2022ko martxoaren 17an egin zuen Nafarroako Parlamentuko kontu-hartzaileak, eta 2022ko martxoaren 21ean eskuratu zitzaigun.

Parlamentuko Kontu-hartzailera eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2021eko ekitaldiko urteko kontuen fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta.

Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruz ISSAI-ES 200 delakoan ezarritakoen arabera, bai eta betetzearen fiskalizazioari buruzkoa den ISSAI-ES 400 delakoan ezarritakoen arabera ere. Halaber, kanpo kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikokoak erabili ditugu. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: arrazoizko segurtasun bat lortzea urteko kontuetan akats materialik ez egoteaz; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa arau indardunen arabera izatea alderdi adierazgarri guztietan.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du auditoretza-ebidentzia lortzeko urteko kontuetako zenbatekoei eta informazioari buruz eta fiskalizatutako ekitaldian araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak betetzeari buruz.

Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela arriskuaren balorazioa, hala iruzur edo errakuntzaren ondorioz kontu orokorreko akats materialak izatearen arriskuarena nola lege-urraketa muntadunak egotearen arriskuarena. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak gogoan izaten du entitateak urteko kontuak egiteko muntaduna den barne-kontrola, inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatzearen, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematearren.

Auditoretzak barne biltzen du, era berean, ebaluatzea aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta beren osotasunean harturiko kontu orokorren aurkezpena ebaluatzea ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du finantzei eta betetzeari buruzko gure fiskalizazio-iritzia funtsatzeko.

IV.1. FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritziz, 2021eko ekitaldiko urteko kontuen aurreproiektuak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten du Parlamentuaren 2021eko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen ditu, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGERIA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Parlamentuaren 2021eko ekitaldiko jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta finantzen egoera-orrietan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

V. URTEKO KONTUEN LABURPENA

Jarraian, Parlamentuaren 2021eko ekitaldiko urteko kontuen kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak erakusten ditugu.

V.1. AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA**Gastu-aurrekontuaren betetzea**

Gastuak	Hasierako kredituak	Aldaketa	Behin betiko kredituak	ABG	Betea (%)	Ordainketak
1. Langile gastuak	8.091.944		8.091.944	7.247.854	90	7.247.521
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.354.348	13.951	2.368.299	1.443.450	61	1.269.621
4. Transferentzia arruntak	3.159.876	46.000	3.205.876	3.008.824	94	2.981.856
5. Kontaketa orokorra eta bestelako ustekabeak	143.922		143.922	0	0	0
6. Inbertsio errealak	786.010	308.295	1.094.305	260.002	24	256.761
8. Finantza-aktiboak	57.795		57.795	21.153	37	21.153
9. Finantza-pasiboak	3.005		3.005	0	0	0
Gastuak, guztira	14.596.900	368.246	14.965.146	11.981.283	80	11.776.912

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldaketa	Behin betiko aurreikuspena	AEG	Betea (%)	Kobrantsak
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860		2.860	76.475	2.674	76.475
4. Transferentzia arruntak	13.747.220		13.747.220	13.747.220	100	13.747.220
5. Ondare-sarrerak	10		10	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	816.205		816.205	816.205	100	816.205
8. Finantza-aktiboak	30.010	368.246	398.256	28.820	7	28.820
9. Finantza-pasiboak	595		595	1.583	266	1.583
Diru-sarrerak, guztira	14.596.900	368.246	14.965.146	14.670.303	98	14.670.303

V.2. 2021EKO EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptuak	2020			2021		
	AE garbiak	AB garbiak	Aurrekontuaren emaitza	AE garbiak	AB garbiak	Aurrekontuaren emaitza
a. Eragiketa arruntak (1. kapitulutik 5.era)	13.878.091	11.656.283	2.221.808	13.823.695	11.700.128	2.123.567
b. Kapital-eragiketak (6. eta 7. kapituluak)	942.205	609.953	332.252	816.205	260.002	556.203
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b)	14.820.296	12.266.236	2.554.059	14.639.900	11.960.129	2.679.770
c. Finantza-aktiboak (8. kapitulua)	32.620	16.741	15.879	28.820	21.153	7.666
d. Finantza-pasiboak (9. kapitulua)	6.000	0	6.000	1.583	0	1.583
2. Finantza-eragiketak, guztira (c+d)	38.620	16.741	21.879	30.403	21.153	9.250
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (1+2)	14.858.916	12.282.977	2.575.938	14.670.303	11.981.283	2.689.020
Doikuntzak						
3. Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			300.029		368.246	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			-		-	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			368.246		384.857	
II. Doikuntzak, guztira (3+4-5)			-68.217		-16.611	
Aurrekontu-emaitza doitua (I+II)			2.507.722			2.672.409
FORU OGASUNARI ITZULTZEKO ZENBATEKOA			2.507.722			2.672.409

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2021EKO ABENDUAREN 31N

Osagaiak	2020	2021
1. Funts likidoak	3.132.277	3.380.160
2.(+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	0	0
3.(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	2.764.031	2.995.303
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	140.909	204.371
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	2.623.122*	2.790.932*
I. Diruzaintza-gerakina, guztira (1+2-3)	368.246	384.857
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	368.246	384.857
III. Saldo kobragaitzak	0	0
IV. Diruzaintza-gerakin atxikigabea (I-II-III)	0	0

* Foru Ogasunari itzuli beharreko funtsak jasotzen ditu.

V.4. 2021EKO ABENDUAREN 31KO BALANTZEA

(Emaiza aplikatu ondoren)

	2020	2021
AKTIBOA, GUZTIRA	19.335.521	18.961.229
A) Aktibo ez-arrunta	16.187.297	15.571.551
I. Ibilgetu ukiezin garbia	144.141	103.753
3. Aplikazio informatikoak	142.178	102.026
2060-2806. Aplikazio informatikoak	142.178	102.026
5. Bestelako ibilgetu ukiezina	1.963	1.727
2090-2809. Bestelako ibilgetu immateriala	1.963	1.727
II. Ibilgetu material garbia	16.021.868	15.447.748
2. Eraikuntzak	12.911.374	12.369.221
2110-2811. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	12.911.374	12.369.221
5. Bestelako ibilgetu materiala	3.095.988	3.068.726
2140-2814. Makineria eta tresnak	862.736	824.870
2150-2815. Garraio-osagaiak	0	0
2160-2816. Altzariak eta tresneria	22.264	17.054
2170-2817. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	399.235	382.755
2190-2819. Bestelako ibilgetu materiala	1.811.753	1.844.047
6. Aribideko ibilgetua	14.506	9.801
2340-Aribideko ibilgetua	14.506	9.801
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	21.288	20.051
4. Bestelako finantza-inbertsioak	21.288	20.051
2540. Epe luzeko maileguak	21.288	20.051
B) Aktibo arrunta	3.148.224	3.389.677
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0
3. Administrazio publikoak	0	0
4709 – Ogasun Publikoa zordun, kontzeptu fiskalak direla eta	0	0
4490 – Beste zordun batzuk	0	0
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	15.947	9.517
4. Bestelako finantza-inbertsioak	15.947	9.517
5440-534. Epe laburreko maileguak, aurrerakinak	15.947	9.517
VII. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	3.132.277	3.380.160
1. Kutxa	2.664	3.778
5700 – Kutxako eskudirua	2.664	3.778
2. Bankuak eta kreditu-erakundeak	3.129.613	3.376.382
5711 – Rural Kutxako kontu korrontea	3.129.613	3.376.382
ORDENA-KONTUAK	18.801	20.353
Abalak eta bermeak	18.801	20.353
0520 – Jasotako abalak	18.801	20.353

	2020	2021
PASIBOA, GUZTIRA	19.335.521	18.961.229
A) Ondare garbia	16.554.958	15.947.811
I. Jarritako ondarea	14.282.128	13.696.238
1000. Ondarea	7.577.843	6.991.953
1001-1070. Atxikipen gisa jasotako ondarea	6.704.285	6.704.285
II. Sortutako ondarea	2.251.573	2.251.573
2.Ekitaldiko emaitzak	368.246	384.857
1291. Atxikitako funtsak, aplikatzeko daudenak	368.246	384.857
IV. Emaitzei aplikatzeko zain dauden beste ondare-gehikuntza batzuk	1.904.584	1.866.716
1300.Dirulaguntzak	1.904.584	1.866.716
B) Pasibo ez-arrunta	10.532	12.115
1800. Epe luzeko fidantzak	10.532	12.115
C) Pasibo arrunta	2.770.031	3.001.303
I. Epe laburreko zuzkidurak. Epe laburreko zorrak	0	0
II. Epe laburreko zorrak	6.000	6.000
4.Bestelako zorrak	6.000	6.000
5600-5200.Jasotako epe laburreko fidantzak eta gordailuak	6.000	6.000
IV. Hartzekodunak eta ordainkizun dauden beste kontu batzuk	2.764.031	2.995.303
1.Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	140.909	204.371
4000. Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	140.909	204.371
4199 – Beste hartzekodun batzuk	0	0
3.Administrazio publikoak	2.623.122	2.790.932
4750. Ogasun Publikoa hartzekodun, PFEZa dela eta	0	0
4751. Ogasun Publikoa hartzekodun, eskubide pasiboak direla eta	0	0
4752. Ogasun Publikoa hartzekodun, erabilera berezia dela eta	0	0
4760. Ogasuna hartzekodun, kredituen itzulketa dela eta	2.507.722	2.672.409
4770. Gizarte Segurantza hartzekodun	115.400	118.524
ORDENA-KONTUAK	18.801	20.353
Abalak eta bermeak	18.801	20.353
0570 Abal-emalleak	18.801	20.353

V.5. 2021EKO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

	2020	2021
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	14.410.519	14.601.293
a) Ekitaldikoak	14.410.519	14.601.293
a.2) Transferentziak	14.410.519	14.601.293
7500.Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	575.808	854.073
7510.Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	13.834.711	13.747.220
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emaleak	0	
6. Kudeaketa arrunteko beste diru-sarrera batzuk	43.379	76.475
7730.Itzulketak	41.927	75.044
7770.Beste diru-sarrera batzuk	1.452	1.390
7000. Argitalpenak saltzea	0	40
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira	14.453.898	14.677.767
8. Langile gastuak	7.268.039	7.271.732
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	6.071.554	5.937.686
6400.Soldatak eta lansariak	2.743.806	2.712.133
6401.Behin-behineko langileen soldatak	571.321	572.610
6402.Parlamentarien dietak eta garraioak	6.830	8.282
6409.Parlamentarien beste gizarte-gastu batzuk	16.225	16.225
6410.Funtzionarioen soldatak	2.615.952	2.587.224
6411.Langile kontratatuen soldatak	81.508	54.498
6412.Bestelako dietak eta garraioak	1.862	2.938
b) Gizarte-zamak	1.196.485	1.334.046
6420.Enplegu-emailearen kargura dagoen Gizarte Segurantzza	1.196.485	1.266.214
6449.Langileen beste gizarte-gastu batzuk	34.050	51.608
9. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	2.997.668	3.008.824
6500.Transferentzia arruntak	2.832.758	2.847.788
6510-Dirulaguntzak	164.910	161.036
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.390.576	1.419.571
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	956.740	1.419.571
c) Beste batzuk	433.836	0
12. Ibilgetuaren amortizazioa	826.886	874.510
B) Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira	12.483.169	12.574.637
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A-B)	1.970.729	2.103.130
13. Beste diru-sarrera batzuk	0	0
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza	1.970.729	2.103.130
15. Diru-sarrera finantzarioak	0	0
III. Finantza-eragiketen emaitzak	0	0
IV. Ekitaldiko emaitza garbia (aurrezkia edo desaurrezkia) (II+III)	1.970.729	2.103.130

V.6. 2021EKO ONDARE GARBIA IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Beste ondare- gehikuntza batzuk	Guztira
A. Amaierako ondare garbia, 2019	14.282.128	368.246	1.904.584	16.554.958
B. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldatetengatik eta akatsak zuzentzeko egindako doikuntzak	0	0		0
C. 2020ko hasierako ondare garbi doitua	14.282.128	368.246	1.904.584	16.554.958
D. 2020ko ondare garbiak izandako aldeak	-585.891	16.611	-37.868	-607.147
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		384.857	-37.868	346.989
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk	-585.891	-368.246		-954.137
Amaierako ondare garbia, 2021	13.696.238	384.957	1.866.716	15.947.811

V.7. 2021EKO ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

	2020	2021
I. KUDEAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak:	14.215.438	14.379.898
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	14.166.963	14.303.423
3. Salmenta garbiak eta zerbitzu-emateak	0	40
6. Beste kobrantza batzuk	48.475	76.434
B) Ordainketak:	14.257.163	14.144.506
7. Langile gastuak	7.152.639	7.150.929
8. Egindako transferentziak eta emandako dirulaguntzak	2.988.589	2.981.856
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	1.265.370	1.247.689
13. Beste ordainketa batzuk	2.850.565	2.764.031
Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)	-41.725	235.392
II. INBERTSIO-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:	38.620	30.403
3. Inbertsio-jardueretako beste kobrantza batzuk	38.620	30.403
D) Ordainketak:	620.069	277.914
4. Inbertsio errealean erosketa	603.329	256.761
6. Inbertsio-jardueretako beste ordainketa batzuk	16.740	21.153
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)	-581.449	-247.511
III. FINANTZAKETA-JARDUERETAKO ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondare-gehikuntzak	609.953	260.002
1300. Finantza-ibilgetua finantzatzeko dirulaguntzak	609.953	260.002
G) Finantza-pasiboen kobrantza	0	0
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak	609.953	260.002
VI ESKUDIRUAREN ETA HAREN BALIOKIDE DIREN AKTIBO LIKIDOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA EKITALDIAN (I+II+III)	-13.221	247.883
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	3.145.498	3.132.277
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	3.132.277	3.380.160

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez fiskalizazio txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarriren bat ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez Nafarroako Parlamentuaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

VI.1. PARLAMENTUAREN AURREKONTUA

Parlamentuaren 2021erako hasierako aurrekontuak 14,6 milioi euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspen hasierakoak jasotzen zituen.

Gastuetan eta diru-sarreretan goranzko aurrekontu-aldaketa batzuk egin ondoren, 0,37 milioiokoa — hasierako kredituen ehuneko hiru egiten dute—, behin betiko gastu eta diru-sarrerak 14,97 milioi euro egiten dute.

Aurrekontuaren likidazioa

2021ean, gastuek 11,98 milioi euro egin zuten, betetze-maila ehuneko 80koa eta ordaintze-maila ehuneko 98koa izanik. Gastu horiek 2020koak baino ehuneko bi txikiagoak izan dira.

Diru-sarrerei dagokienez, 2021ean 14,67 milioiokoa eskubideak aitortu ziren, eta betetze- eta ko-bratze-mailak ehuneko 98koa eta 100ekoa izan ziren, hurrenez hurren. Kasu honetan, 2020koen aldean jaitsiera ehuneko batekoa izan da.

Taula honetan ageri dira Parlamentuaren gastuen eta diru-sarreraren xedea eta finantzaketa, ehunekoetan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileak	60	Transferentzia arruntak	94
Transferentzia arruntak	25	Kapital-transferentziak	6
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	12		
Inbertsio errealak	2		
Bestelakoak	1		
	100		100

Ondoren, 2020ko eta 2021eko ekitaldietako aurrekontu-likidazioarekin zerikusia duten adierazle batzuen alderaketa erakusten dugu:

Adierazlea	2020	2021	2021/2020 aldea (%)
Aitortutako eskubideak, guztira	14.858.916	14.670.303	-1
Aitortutako betebeharrak, guztira	12.282.977	11.981.283	-2
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	13.878.091	13.823.695	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	11.656.283	11.700.128	0
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	942.205	816.205	-13
Kapital-gastuak (6. kapituluak)	609.953	260.002	-57
Aurrekontu-emaitza doitua	2.507.722	2.672.409	7
Diruzaintza-gerakina	368.246	384.857	5

Aurreko bilakaeratik, honako hau azpimarratu behar dugu:

- Diru-sarreraren eta gastuen betetze-maila ez da nabarmen aldatu. Kapitaleko diru-sarrerak eta gastuek, aldiz, garrantziko aldaketa izan dute, aurreko ekitaldiko aldean hurrenez hurren ehuneko 13 eta ehuneko 57 egin baitute behera.

Kapital-gastuen beherakada gertatu da, funtsean, gastuetako kapitulu horrek 2021ean betetze-maila txikia izan duelako. Izan ere, guztira 393.149 euro egiten zuten bi hornidura-kontratu adjudikatu ziren azaroan¹, eta kontratu horien aurrekontu-betetzea 2022ko ekitaldira aldatu da, bai eta ekitaldi horri egotzi ere.

- Aurrekontu-emaizta doitua, 2,67 milioikoa, araudi indardunaren arabera Foru Ogasunari itzuli beharreko zenbatekoa da.

VI.2. AURREKO URTEETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Egiaztatu dugu indarrean jarraitzen duela 2020. urteko kontuei buruzko Ganbera honen txostenean langileei buruz jasotako gomendio honek:

- *Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoan dauden lanpostu hutsak deialdi publikoaren bidez betetzeko hasitako egintzekin jarraitzea, aplikatu beharreko araudiari jarraikiz lanpostu horiek behin betiko betetzeko.*

VI.3. KUDEAKETA-ARLOAK

VI.3.1. Alderdi orokorrak

2020ko azaroaren 2an, Eledunen Batzarrak 2021eko ekitaldirako Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontu Proiektua onetsi zuen. Egun berean igorri zitzaion proiektua Nafarroako Gobernuari Nafarroako Aurrekontu Orokorraren proiektuan sartzeko. Hori dela eta, esan behar dugu Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen lehen xedapen gehigarrian ekitaldi bakoitzeko urriaren 1era arteko epea ezartzen dela igorpen horretarako.

VI.3.2. Langile gastuak

2021ean langile gastuak 7,25 milioi eurokoak izan ziren, ehuneko 90eko betetze-maila izan zuten, eta ekitaldian guztira aitortutako betebeharren ehuneko 60 egin zuten.

Nahiz eta 2021eko ekitaldian soldaten ehuneko 0,9ko igoera onetsi zen 2020ko ekitaldiaren aldean, langile gastuek, oro har, oso aldaketa txikia izan zuten, honako taula honetan ageri diren partidetan izan ezik:

¹ 2021eko azaroaren 15ean 299.272 eurotan (BEZa barne) adjudikatutako kontratua

2021eko azaroaren 30ean 93.877 eurotan (BEZa barne) adjudikatutako kontratua.

Kontzeptua	ABG, 2020	ABG, 2021	2021/2020 aldea (%)
Lehendakaritzaren ordainsariak	73.380	74.041	1
Parlamentarien ordainsariak	2.489.571	2.558.058	3
Parlamentari ohien ordainsariak	123.287	0	-100
Parlamentarien dietak	57.568	80.034	39
Lehendakaritzako Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak	96.279	97.145	1
Behin-behineko langileen ordainsariak. Beste kargudun batzuk	475.042	475.465	0
Funtzionarioen ordainsariak	1.893.716	1.617.349	-15
Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak	803.745	1.024.372	27
Gizarte segurantza	679.148	737.758	9
Parlamentarien gizarte segurantza	517.337	528.455	2
Beste hobekuntza sozial batzuk	0	15.861	
Parlamentarien aseguruaren prima	16.225	16.225	0
Zerbitzuetako langileen aseguruaren prima	24.546	23.089	-6
Guztira	7.249.844	7.247.854	0

Aldaketa esanguratsuenak berrikusi eta aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu behar bezala oinarrituta eta dokumentatuta daudela.

Jasotako ordainsariei dagokienez, datu-gurutzatze agregatu baten bitartez aztertu dugu ea jasotako nominak, hala langile publikoenak² nola parlamentarienak³, legez jaso behar zituztenak izan ote diren; eta emaitza baiezkoa da. Egiaztatu dugu, halaber, zergen arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak behar bezala kontabilizatu, aitortu eta ordaindu direla.

Plantilla organikoa

Nafarroako Parlamentuko langileriar buruzko arauak Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan eta Nafarroako Parlamentuko Administrazioaren Antolaketa buruzko Erregelamenduan daude.

Arau horiek aldatu egin ziren 2021eko urriaren 19an eta uztailaren 26an, hurrenez hurren, Nafarroako Parlamentuko zerbitzuak berrantolatze prozesua hasi zenean. Aldaketak onetsi eta gero, 2021eko urriaren 25ean, Parlamentuko Mahaiak 2021eko plantilla organikoa onetsi zuen. Bertan garatu da administrazio- eta antolaketa-egitura berria, 1. eranskinean jaso dena.

Honako hauek dira lanpostuak, onetsitako azken plantilla organikoaren arabera:

Sailkapena	2021/12/31
Funtzionarioak	60*
Behin-behineko langileak	3
Talde parlamentarioetako laguntzaileak	13
Guztira	76

*2021eko plantilla organikoan lanpostu berri bat sartu da.

² 2021eko plantilla organikoan ageri diren osagarriak

³ Parlamentuko Mahaiaren 2021eko urtarrilaren 18ko erabakia, ordainsari finkoak onesten dituen erabateko dedikazioaren araubidean eta erabateko dedikaziorik gabe.

Funtzionarioen lanpostuen 2021eko abenduaren 31ko egoera ikus daiteke taula honetan:

	2021/12/31
Plantillako lanpostuak	60
Beteta/Plaza erreserbatuta	34
Hutsik	26
Lanpostu hutsak, guztizkoaren aldean (%)	43
Bete diren lanpostu hutsak	24
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak (%)	92

2021eko abenduaren 31n, lanpostu guztien ehuneko 43 lanpostu hutsak ziren; horietatik, ehuneko 92 aldi baterako beteta zeuden.

2021eko abenduaren 31n, honako langile publiko hauek lan egiten zuten Nafarroako Parlamentuan:

Langileak	2021/12/31
Funtzionarioak	30
Administrazio-kontratadun langileak	24
Guztira	54
Langile kontratatuak/langile guztiak (%)	44

Taula horri eta beraren analisiaren ondorioei dagokienez, adierazi behar dugu ez direla jaso aldi baterako ordezkapenatarako kontratazioak, ez behin-behineko langileak, ezta talde parlamentarioetako laguntzaileak ere. Hurrengo alderdiak azpimarratuko ditugu:

- Aldi baterako langileen tasa 2021aren amaieran ehuneko 44 zen; tasa horrek aldi baterako lanaren maila handia erakusten du. Adieraziko dugu, halaber, luzerako kontratazioetan oinarrituta dagoela; zehazki, 2021eko abenduaren 31n administrazio-kontratadun langileak 24 ziren, eta horietatik bederatzik hiru urte baino gehiago zeramatzaten kontratatuturik eta bostek bi urte baino gehiago.

Hiru urtetik gorako kontratuekin plantilla organikoko lanpostu hutsak betetzen dituztenei buruz, honako hau nabarmenduko dugu, bereziki:

a) Legelari izateko bost lanpostuetatik lau⁴ hutsik daude, eta horietatik hiru langile kontratatuek betetzen dituzte hiru urtetik gorako kontratuarekin.

b) Komunikazioko teknikari izateko bi lanpostuetako batek ia 12 urte daramatza kontratatuta.

c) Kudeaketa Administratiboko erdi mailako teknikarientzako lau lanpostuetatik, bada lanpostu huts bat bost urte daramatzana aldi baterako beteta.

d) Gelazain izateko bost lanpostu hutsetatik, bi kontratuk hiru urtetik gorako iraupena dute, eta horietako bat duela 17 urtetik dago kontratatuta.

- Egoera horri dagokionez, adieraziko dugu 2021eko abenduaren 28an 20/2021 Legea onetsi zela, enplegu publikoan aldi baterako lana murrizteko presako neurriei buruzkoa. Neurri horien helburua da, azken batean, aldi baterako lanaren tasa egiturazko lanpostuen ehuneko zortitik beherakoa izatea.

⁴ Lanpostu horietako bat hutsik geratu zen legelari batek erretiroa hartu zuenean, 2021ean

2020aren erdi aldera, Nafarroako Parlamentuak bere zerbitzuak berrantolatu eta lanpostu hutsak betetzeko beharra baloratu zuen. Ildo beretik, Parlamentuko Mahaiak 2020ko ekainaren 22an onetsi zuen erabaki batean 2021etik aurrera hartu beharreko neurriak planifikatu ziren; besteak beste, Parlamentuko Langileen Estatutua eta Antolaketari buruzko Erregelamendua aldatzea, gorago aipatu den bezala.

20/2021 Legea aplikatuz, Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 30ean, aldi baterako enplegua egonkortzeko erabaki bat onetsi zuen. Bertan zehaztu da plantilla organikoko zein lanpostutan eginen diren egonkortze prozesuak; langileak hautatzeko sistema oposizio-lehiaketa izanen da, bai eta merezimendu-lehiaketa ere.

Gomendatzen dugu:

- *Neurri egokiak hartzea aurreikusten diren lanpostu hutsak behin betiko betetzeko, 20/2021 Legean ezartzen den bezala. Helburua da aldi baterako lanaren gehieneko tasa egiturazko lanpostuen ehuneko zortitik behera ekartzea, aplikatu behar den esparru berrian ezarritako baldintzak eta epeak betez betiere.*

VI.3.3. Kontratazioa

Aplikatu beharreko kontratu-esparrua arau hauetan ezarrita dago: Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean (hemendik aurrera, KPFL) eta 2020ko urtarrilaren 27an onetsitako Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioan.

Honako kontratu-lagin hau berrikusi dugu:

Kontrataua	Adjudikatze prozedura	Lizitazio zenbatekoa (BEZik gabe)	Lizitatuak kopurua	Adjudikazio zenbatekoa (BEZik gabe)
Espedienteen kudeaketa elektronikorako tresna bai kontratatzea Nafarroako Parlamenturako	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik gora	322.500	2	247.332
Nafarroako Parlamentuaren egoitzako kontraleihoetako eta garaje-ateetako automatismoen mantentze lanak kontratatzea	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera	20.000	1	15.345
Harpidetza: Smarteca, La Ley	Lizitazio deialdirik gabe negoziatua	-	1	6.316
Stela aplikazio informatikoaren harpidetza	Lizitazio deialdirik gabe negoziatua	-	1	4.260
Argazki zerbitzuak	Prozedura erraztua	27.000	4	25.900
Kontrataua	Adjudikatze prozedura	Lizitazio zenbatekoa	Eskaintza kopurua	Fakturatu-tako zenbatekoa BEZik gabe
Ekipamendu informatikoak mantentzea	Munta txikiko kontratua	Ez da aplikatzen	3	15.000
Eraikinak mantentzea	Munta txikiko kontratua	Ez da aplikatzen	2	9.200
Bidaia agentzien zerbitzuak	Munta txikiko kontratua	Ez da aplikatzen	-	6.945
Argazki zerbitzuak	Munta txikiko kontratua	Ez da aplikatzen	1	9.908
Kafetegiko eta Parlamentuko beste zerbitzu batzuetako arreta zerbitzua	Munta txikiko kontratua	Ez da aplikatzen	2	13.676

Honako luzapen eta berritze hauek ere aztertu ditugu:

Kontratua	Zenbatekoa (BEZik gabe)
Nafarroako Parlamentuaren egoitza den eraikinaren garbiketa zerbitzurako kontratua luzatzea.	252.451
Nafarroako Parlamentuaren egoitza den eraikineko klimatizazio-sistema mantentzeko kontratua luzatzea	27,77 euro mantentze-orduko 28 euro 1. mailako ofizialaren lanorduko
Nafarroako Parlamentuko kontraleihoetako eta garaje-ateetako automatismoen mantentze lanetarako kontratua luzatzea	18.000
Nafarroako Parlamentuak Oracle Enterprise Edition erabiltzeko dituen bi lizentzien mantentze-lanetarako eta laguntzarako kontratua berritzea	7.474
Nafarroako Parlamentuko agiriak konfidentziaztasunez eta segurtasunez suntsitzeko zerbitzua berritzea.	10 euro hilean, edukiontzia alokatzeko. 67,33 euro, edukiontzia bi hilean behin suntsitzeko.
Nafarroako Parlamentuko azpiegitura birtualerako VMWare softwarearen laguntza zerbitzua berritzea (hiru lizentzia eta hiru urteko indarraldia)	14.230

Oro har, aipatutako kontratuen espedienteak kontratu-esparruari jarraituz izapidetu dira, eta haietatik datozen gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta araudian ezarritako epeetan ordaindu dira. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Europar Batasuneko atalasearen gainera eta prozedura irekiaren bidez izapidetu den kontratua, ikusi dugu espedienteko dokumentazioan falta dela adjudikaziodunak aurkeztu beharreko agiritako bat, hain zuzen ere langileen ehuneko bi, gutxienez, desgaitasuna duten langileak izatearen egiaztatzea⁵. Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen arabera, hori kontrataziotik baztertzeko arrazoia da.

Gure eskaerari erantzunez, zerbitzu kudeatzaileak enpresa adjudikaziodunari agiri hori eskatu dio. Kontratazio mahaia kontratua egin baino lehen baldintza hori egiaztatuta behar zuten eta agiria aurkezteko errekerimendua egin, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 55.8 artikuluan xedatutakoari jarraituz eta bere eginkizunak betez (51.1.a artikulua).

- Munta txikiko kontratuei dagokienez, Parlamentuaren Erregelamendu Ekonomiko-finantzari-oon jasotako arauen berezitasunak nabarmenduko ditugu lehenik: izan ere, adjudikazio prozedura mota honetarako betekizun hauek ezartzen ditu 17.5 artikulua:

-Kontratua kudeatzen duen unitatearen txostena, non kontratuaren beharrezko arrazoiak azaldu behar baitira.

-Aurretzako kreditu-erreserba.

-Bi eskaintza gutxienez ere, kontratuaren balio zenbatetsia 3.000 eurotik gorakoa denean.

-Gastua eta faktura onestea.

Horrez gain, 17.7 artikulua ezartzen du zenbateko txikiko kontratu batek ezin izanen dituela xede gisa eduki errepikakorrak diren prestazioak, halako moldez non, urtez urte, premia berari

⁵ Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 22.1.f) artikulua, bat etorritik 42. artikuluekin. Dekretu horrek Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorren testu batekina onesten du.

erantzuten dioten. Halatan, haien kontratazioa planifikatu ahalko da, prozedura arrunten bitartez egin ahal izateko.

Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioan ezarritako baldintza formalak betetzen direla egiazta-tzeaz gain, aipatu zerbitzuetako 2018-2021 bitarteko fakturazioa aztertu dugu, honako espediente hauetakoa, zehazki:

Kontratua	2018*	2019*	2020*	2021*	Guztira
Argazki zerbitzuak	8.596	12.140	18.598	9.908	49.241
Kafetegiko eta Parlamentuaren beste zerbitzu batzuetako arreta zerbitzua	15.635	15.127	10.613	13.676	55.052

*BEZik gabeko zenbatekoak dira

Kontratuetako bakoitzean adjudikaziodun beraren prestazio errepikatua eta hurrenez hurrenekoa ikusi dugu, arestian aipatutako 17.7 artikuluan ezarritakoaren kontra (2020ko otsailetik aurrera da aplikatzekoa). Hala ere, 2021eko ekainean, argazki zerbitzua ematen zuenak lanbide-jarduerari utzi ziola eta, kontratua adjudikazio prozedura erraztuaren bitartez adjudikatu zen, aurretik bost eskaintza eskatuta.

Nolanahi ere, hurrenez hurreneko ekitaldietan kontratatu beharko direla alde aurretik jakiten den zerbitzu edo horniduren kasuan, nabarmendu behar dugu Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 81. artikulua, munta txikiko kontratuei buruzkoa, aldatu egin zela 2021eko urrian, Erregelamendu Ekonomiko-finantzarioaren 17.7 artikulua irelidoari jarraituz.

Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen aldaketa horrek kontratazioa egokiro programatu beharra berresten du. Gainera, ez da ahaztu behar aipatu legean ezarritako kontratazio-printzipioei eta adjudikazio-prozedurei jarraituz adjudikatu behar direla kontratuak.

- Berrikusitako hiru luzapen espedienteak eta hiru berritze espedienteak zuzenak direla uste dugu, salbu eta "Nafarroako Parlamentuko azpiegitura birtualerako VMWare softwarearen laguntza zerbitzua berritzea" helburu duena, zeinaren xehetasunak azalduko baititugu. Hau da kontratazio horren kronologia:

2014 Hasierako adjudikazioa	2017 Lehenbiziko berritzea	2018 Bigarren berritzea	2019 Hirugarren berritzea	2020 Laugarren berritzea
Prozedura irekiaren bidezko adjudikazioa: VMWare-rako laguntza HP hardwarearekin	4 eskaintza eskatu ziren	2017ko adjudikazioduna	2017ko adjudikazioduna	2017ko adjudikazioduna, hiru urteko iraupenarekin

Kontratua azken aldiz berri denean, desberdintasun esanguratsu bat izan da aurreko ekitaldien aldean: desagertu egin dira 2017ko baldintza murriztaileak, HP hardwarearen eta VMWare softwarearako laguntzaren arteko bateragarritasuna eskatzen zutenak. 2017an eskaintza bana eskatu zitzaizen HPk baimendutako lau lizentzia-banatzailerei, 2017ko txostenean adierazi zen bezala.

Azken berritze honetan, aldiz, beste hardware informatiko batzuekiko bateragarritasuna eta aukera ikusita, gehiago ziren VMWare softwarearako laguntza emateko baimendutako enpresak. Beraz, uste dugu lehia sustatu behar zela, eskaintzak eskatuz aipatu softwarearako laguntza ematen duten beste enpresa batzuei.

Bestalde, berrikusteko lagin gisa hautatu ditugun hiru berritzeak ez dira ageri lizitazio deialdirik gabeko hamar prozedura negoziatuen zerrendan, oroitidazkian.

Gomendatzen dugu:

- *Adjudikazio-hartzaile izateko proposatua izan den pertsonak kontrataziorako baldintzak egiazki betetzen dituela frogatzeko aurkeztu beharko dituen agiri guztiak aipatzea administrazio klausula partikularren agirietan.*

• *Kontratazioa planifikatzea epeak prestazio motaren arabera egokitzeko moduan, horrela behar beste denbora lehenago izapidetu ahal izateko lizitazioak, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 71.1 artikuluan ezarritako prozeduren arabera. Helburua da lizitatuzaileen arteko lehia nahikoa bermatzea, zerbitzuen adjudikazioan kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik onena bermatzeko mekanismo gisa.*

VI.3.4. Transferentzia arruntetako gastuak

Parlamentuaren transferentzia arruntetako gastuak hiru milioi eurokoak izan ziren, eta gastu guztien ehuneko 25 egiten dute; haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan zen. Kapitulu honetako gastuak 2020koen antzekoak izan ziren, eta ez ziren nabarmen aldatu.

Talde parlamentarioentzako ordainsariak

Talde parlamentarioei esleitutako gastu-partida berrikusi da, 2,78 milioi eurokoa, kapituluko gastuen ehuneko 93 hartzen duena, taldeen araberrako honako xehetasun hauekin:

Talde parlamentarioa	Zenbatekoa
Navarra Suma talde parlamentarioa	916.308
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	587.712
Geroa Bai talde parlamentarioa	475.752
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	413.856
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkarteak	209.052
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	178.104
Guztira	2.780.784

Egiaztatu dugu talde parlamentarioei ordaindutako zenbatekoa Mahaiak 2021eko urtarrilaren 18an hartutako erabakiaren bidez onetsitako ordainsari ekonomikoei dagokiela.

Bestalde, aurreko ekitaldiko txostenean⁶ oso berrikuntza garrantzitsu bat aipatu genuen: Parlamentuko Mahaiak 2019ko irailaren 2an talde parlamentarioentzako ordainsariei buruzko arauak onetsi zituen, eta 2020ko urtarrilaren 1ean hartu zuten indarra. Txosten horretan arau-esparru berriaren funtsezko alderdi nagusiak azaldu genituen.

Arau horiek 2021eko ekitaldian betetzeari buruz, hau egiaztatu dugu:

- Talde parlamentarioek garai eta modu egokian informatzeko betebeharra bete dute.
- Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak nahitaezko txostena eman du.
- Onetsi da Mahaiaren ebazpena, aipatu araudian eskatzen diren izapideak betetzat eman eta Parlamentuaren webgunean eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea baimentzen duena.

⁶ 2021eko ekainaren 23an argitaratutako txostena.

Xede hauek aurkeztu dituzte talde parlamentarioek:

Talde parlamentarioa	Zenbatekoa	Lotutako entitateei intsuldatzea (8/2007 LO, 2.e art.)	%	Funtzionamendu, antolamendu eta jardura arrunteko gastuak	%	Emaitza	Finantza-gastuak	Ekitaldiko emaitza
Navarra Suma talde parlamentarioa	916.308	773.165	84	142.948	16	195		195
Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa	587.712	587.600	100	106	0	6		6
Geroa Bai talde parlamentarioa	475.752	475.000	100		0	752	36	716
EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa	413.856	413.017	100		0	839	886	-47
Podemos-Ahal Dugu Nafarroa foru parlamentarien elkartea	209.052	226.473	108	2.606	1	20.027 ⁷		-20.027
Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoa	178.104	176.400	99	1.090	1	614		614
Guztira	2.780.784	2.651.655	% 95	146.750	% 5	-17.621	922	-18.543

Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

- Talde parlamentarioei esleitzen zaizkien eta alderdi politikoen edo horiek barnean dituzten alderdi federazioen nahiz hauteskunde koalizioen finantzaketarako erabiltzen diren zenbatekoak Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren (hemendik aurrera, APFLO) 2. artikuluko e) letran aurreikusita daude. Gastu horiek kongruenteak dira talde parlamentarioentzako ekarpenak justifikatzeko, Talde parlamentarioen ordainsariei buruzko Arauen 19. artikuluan adierazten denez.

Hala ere, aipatu arauak honelako ekarpeni mugarik ezartzen ez dien arren, 4. artikulua dio dirulaguntzak talde parlamentarioen funtzionamendu, antolaketa, langileria eta jardura gastu arrunten finantzaketarako erabiliko direla. Ildo horretan, Kontuen Auzitegiak 1.445. Mozioan azaldu duen irizpidearen arabera⁸, talde instituzionalek beren izaeragatik jasotzen dituzten dirulaguntzak instituzionalki esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko erabili behar dira. Ganbera hau bat dator iritzi horrekin.

Mozio horretan, Kontuen Auzitegiak dio legeriak ekarpen horien baldintzak eta betekizunak ezarri behar lituzkeela, berariaz jasoz taldeek alderdi politikoei egiten dizkieten ekarpenen justifikazioa, gerta bailiteke ekarpen horiek kontrapartida izatea alderdiek taldeen funtzionamendurako emandako zerbitzuen truke. Horregatik iradokitzen du komeni dela batzuen eta besteen arteko hitzarmenak sinatzea eta horietan zehaztea aldean arteko zerbitzuak.

- Nolanahi ere, alderdi politikoen finantzaketaren fiskalizazioa Kontuen Auzitegiaren fiskalizazio eskusiboa da, gorago aipatutako Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoaren 16.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

⁷ Aurreko ekitaldiko gerakina ekitaldi honetan erabili dute eta emaitza negatiboa da, ekarpen handiagotzat kontatzen baita ondorio hauetarako.

⁸ 1.445. Mozioa, talde politikoen eta lotutako edo mendeko fundazio eta gainerako entitateen jardura ekonomiko-finantzarioaren finantzaketari eta kontrolari buruzkoa

Gomendatzen dugu, talde parlamentarioei ematen zaizkien dirulaguntzen izaera finalista dela eta, azter dadila alderdi politikoez lankidetzaren harremanak hitzarmenen bidez formalizatzeko aukera; hitzarmen horietan jasoko lirateke alderdi politikoez taldeei ematen ahal dizkieten zerbitzuak, beren balorazio ekonomikoarekin, bai eta zerbitzu horien kostua konpentsatzeko taldeek urtero egin behar duten ekarpenaren zenbatekoa ere.

Hitzarmenak eta dirulaguntzak

Bestalde, aurrekontu-partida hauen betetzea eta aurreko ekitaldiaren aldean izandako eboluzioa aztertu ditugu, eta honako taula honetan jaso dugu emaitza:

Kontzeptua	ABG, 2020	ABG, 2021	Aldea (%) 2021/2020
Hitzarmenak	149.910	159.926	7
Garapen- eta elkartasun-jardueretarako dirulaguntza	52.920	67.004	27
Sahara taldeartekoarentzako dirulaguntza	15.000	1.110	-93

Taula horri buruz esan behar dugu ekitaldien arteko aldearen arrazoi nagusia dela diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko epeen eta amaierako justifikazioa aurkezteko epeen arteko aldea, proiektuaren likidazioa hurrengo aurrekontu-ekitaldiari egoztearen eragin baitezake.

Aurrekontu lerratze horiek modu egokian zuzentzen dira Parlamentuko Mahaiak urtero onesten dituen kreditu-txertatzeen bitartez.

Honako espediente hauek aztertu ditugu:

Kontzeptua	Emandako zenbatekoa	Aurreratu-tako zenbatekoa	Justifikatutako gastua	Justifikatugabeko gastua	Amaierako likidazioaren zenbatekoa/Itzulketa
Hitzarmena Nafarroako Unibertsitatearekin	12.968	12.968	11.832	1.134	-1.134
Hitzarmena NUPekin. Memoria Historikoren Dokumentu Funtza	71.000	56.800	70.376	-	13.577
Hitzarmena NUPekin. Zuzenbide Parlamentarioko Ikasgela, Análisi Soziologikoko Katedra	48.999	35.000	44.096	-	9.096
Dirulaguntza: Medicus Mundi Nafarroa-Aragoi-Madril ⁹	11.000	-	74.400	-	11.000
Dirulaguntza Bakerako Lankidetzaren Batzarreari ¹⁰	5.987	-	6.587	-	5.987

⁹ "Gazteak eta hezkuntza ez-formala 2020" proiektuak. Nafarroako Parlamentuak finantzatu du proiektuaren ehuneko 14,78a.

¹⁰ "Arrazakeriarik gabeko eskolak, bakerako eta garapenerako eskolak: ihes egitea jolasa ez denean" proiektua. Nafarroako Parlamentuak finantzatu du proiektuaren ehuneko 90,89a.

Egindako egiaztapenetatik honako hau ateratzen da:

- Egiaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak baimenduta, kontu-hartzaitzak onartuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daudela, eta dirulaguntzen onarpena, justifikazioa eta ordainketa nahiz hitzarmenean egindako itzulketa haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera egin direla.
- Hitzarmenen justifikazioan ikusi dugu, ordea, zerbitzu kudeatzaileak ez duela osorik berrikusi frogagiriaren edo/eta fakturen egiaztapena, eginkizun hori Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuaren esku utzita.

Ildo horretan, organo kudeatzailearen ardura da bai proiektuen gauzatzea gainbegiratzea, ea laguntza ematean ezarritako baldintzak bete diren, bai hitzarmenetan finantzatutako zenbatekoaren egiaztagiria edo/eta fakturak berrikusi eta egiaztatzea. Hain zuzen ere, Parlamentuko Mahaiaren 2020ko abenduaren 9ko Erabakiak, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekiko lankidetzaren hitzarmenaren eranskina onetsi zuenak, eginkizun hau ezarri zion zerbitzu kudeatzaileari:

4.hitzarmenaren gauzatzea kudeatu eta kontrolatzea.

Beste alde batetik, kontu-hartze eginkizuna Kontu-hartzaitza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak bete behar duenez, aurreiazko fiskalizazioaren bitartez garatzen da eginkizun hori, organo kudeatzailearen lana kasu bakoitzean aplikatu beharreko xedapenen arabera delat bermatzeko.

VI.3.5. Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 13,74 eta 0,81 milioi eurokoak izan dira, diru-sarrera guztien ehuneko 99, eta horien betetze-maila ehuneko 100ekoa izan da. Horri dagokionez, egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak lortutakoarekin, eta egindako egiaztapenen emaitza zuzena dela.

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria, Ignacio Cabeza del Salvador

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza plana 2021-2025.

UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordeak, 2022ko ekainaren 29an egindako bilkuran, 2021-2025 Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana onetsi zuen, eta honako erabaki proposamen hauek gehitu zizkion.

Lehenbizikoa.

30. orrialdean. BERDINTASUNA.

Laguntza publikoetan eta kontratazioan aintzat hartu beharreko genero-irizpideei dagokienez, ondokoa gehitzea: “berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioekin gatazkan sartzen ez diren bitartean, halako moldez non balizko onuradunak kaltetzea saihestuko den”.

Bigarrena.

34. orrialdeko azken paragrafoaren aurrean, “kalitatezko hezkuntza”ren ondoren eta “Azkenik”en aurretik, ondoko a gehitu:

“Halaber, bideak bilatuko dira ondok xedek lortzeko:

1. Neurrien artean lehenestea berdintasun-indizeak jasotzen dituzten ekimenak I+G+B arloko politika publikoetan ondasun eta zerbitzuak banatzeari dagokionez, bai eta emaitzak industriara transferitzeaz politika publikoetara transferitzea ere jasotzen dutenak ere, herritarren beharrianak ase eta eskubideak bermatzeko eta gizarte ongizate maila hobea lortzeko.

2. Teknologia irekien erabilera sustatzea, hau da, irisgarriak eta eskuragarriak; ulergarriak, diseinu agerikoa eta gardena dutenak, ez opakua, ezagutzaren eta haren aplikazioaren kudeaketaren demokratizazioari begira, herritar informatuek eduki zientifikoa duten gatazka sozialetan parte hartzea ahalbidetuz”.

Hirugarrena.

36. orrialdean, 1M – SINAI ERAGILEETARA A-TXIKITAKO SENIOR IKERTZAILEEN KONTRATAZIOA atalean, honakoa gehitu:

“planaren indarraldian urteko zuzkidura ekonomikoa % 10 gutxienez handitzeko konpromisoarekin”.

Laugarrena.

42. orrialdean, 4. ERRONKAREKIN LOTUTAKO NEURRIAK – SINAI ERAGILEEN ETA ENPRESA-EGITURAREN ARTEKO LOTURA AREAGOTZEA atalean, honakoa gehitu seigarren paragrafoari:

“Beharrezkoa da berrikuntza-jarduketak egiten dituzten enpresen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzaren sustatzeko neurriak ezartzea”.

Bosgarrena.

58. orrialdean, GOBERNANTZA atalean, DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEARI dagokion paragrafoan, honako esaldia proposatzen da lehenengo esaldiaren orde:

“Departamentuartereko Batzordea Nafarroako Gobernuko I+G+B arloko departamentu eskudunak zuzenduko du”.

Seigarrena.

58. orrialdean.

7. atalean –GOBERNANTZA–, DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA apartatuan, paragrafo berri bat gehituko da. Hona testua:

“Departamentuartereko Batzordeak urtero txosten bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, non jasoko baitira Nafarroako Zientzia, teknologia eta berrikuntza planaren betetze-maila, eginiko jarduketak, bai eta adierazleen eta haien berrikuspenaren betetze-mailaren azterketa ere”.

Zazpigarrena.

59. orrialdean, 7.2 EREDUA ETA PRINTZIBIOAK ataleko 3. puntuan –Planaren egikaritzapenean gardentasuna, etengabeko hobekuntza eta kontu-ematea sustatzeko konpromisoa–, honakoa gehitzea proposatzen da:

“Nafarroako Gobernuko I+G+B arloko departamentu eskudunaren titularrak agerraldia eginen du urtero Nafarroako Parlamentuko dagokion batzordean, planaren garapenari eta betetzeari buruz informatzeko eta kasuko txostena, Departamentuarterko Batzordeak prestatutakoa, aurkezteko”.

Zortzigarrena.

65. orrialdean.

8.2 NAFARROAKO BERRIKUNTZA BEHATOKIA puntuko HEDAPENA ETA BILAKAERA apartatuaren “Mantentzea eta bilakaera. 2022ko 4. hiruhilekoa” puntua aldatzen da. Hona testua:

Mantentzea eta bilakaera. 2022ko 4. hiruhilekoa

- Txostenak eta azterlanak egitea
- Talde teknikoarekiko koordinazioa
- Sareekiko koordinazioa
- Edukiak mantentzea eta hobetzea. Horien artean, Behatokiak proposatuko du, Nafarroako Parlamentuak Zientzia, teknologia eta berrikuntza Plana onetsi eta urtebeteko epean, gizarteberrikuntzak komunitatean duen egoera monitorizatzeko adierazleak sartzea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias